

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Aplikazioak gizartean inpaktu handia izateko, banaketa eta komunikazio kanal eraginkor eta estrategikoki egituratuak behar ditu. Kanal horiek aplikazioaren helburuen eta balio-proposamenaren inguruan diseinatu dira.

1. Komunikazio Kanalak

Aplikazioaren mezua zabaltzeko eta erabiltzaile potentzialak erakartzeko tresna nagusiak hauek izango dira:

1.1 Sare Sozialak

Sare sozialak publiko zabala eta anitza lortzeko tresna eraginkorrak dira. Kanpaina zuzenduen bidez, aplikazioa nabarmentzea bilatzen dugu:

- **TikTok:** Eduki motzak eta eraginkorrak, belaunaldi gaztearen arreta erakartzeko. Adibidez, bideo motzak mikromatxismoa detektatzeko.
- **Instagram:** Argazki eta bideo erakargarriak, edukia bisualki aurkezteko eta horrela bezero berriak erakartzeko.
- **Twitter:** Mezu laburrak eta zuzenduak, publiko sozialki kontzientearen artean zabalkundea lortzeko. Matxismoari buruz komentarioak egiteko edota, indarkeria matxista zalatzeko.



1.2 Komunikabide Tradizionalak

Komunikabide tradizionalak eragin handia izan dezakete publiko anitzarengan:

- **Telebista eta irrati iragarkiak:** Bereziki gizarte-erantzukizuneko kanpaina gisa aurkeztuz. EITB-rekin kolaboratuko dugu batez ere, gero beste telebista eta irrati kanalekin lan egingo dugu.
- **Egunkariak eta aldizkariak:** Aplikazioaren edukia eta helburuak artikulua eta iragarkietan agertuz. Anboto aldizkariarekin lan egingo dugu batez ere eta El País-ekin artikulua batzuk argitaratuko ditugu. Berria egunkariarekin ez? Hauxe da euskaraz dugun egunkari bakarra ...



1.3 Eduki Digitalak

Hezkuntza eta kontzientiazio elementuak sortzea oso garrantzitsua da:

- Bideoak eta podcast-ak, matxismoari aurre egiteko estrategiei buruzkoak. La Pija y La Quinqui podcast-arekin lan egingo dugu. Tik-tok munduan sartzean La Riverss-ekin eta Lola Lolitarekin lan egingo dugu.
- Artikulu informatiboak eta gidak, matxismoaren identifikazio eta aurre-egiteko baliabide gisa.



- Testigantzak eta esperientzia errealak Aurora app-aren barruan argitaratuko ditugu, komunitatea hunkitzeko eta erakartzeko.

MERCHANDISING →




2. Banaketa Kanalak

Aplikazioa erabiltzaileengana iristeko moduak ondo pentsatuta egon behar dira, eta hurrengo estrategia hauetan oinarritzen dira:

2.1 App Plataformak

- **App Store** eta **Google Play Store** bidez aplikazioa deskargatzeko aukera, eskuragarritasun globala bermatzeko.



2.2 Hezkuntza Sistemak

- Derrigorrezko Bigarren Heskuntzako institutuak eta unibertsitateak (Durangaldeko instituto eta eskola guztiekin eta EHU-ko unibertsitateekin elkarlana egingo dugu:
 - Genero-berdintasunaren eta matxismoaren prebentziorako material hezitzaile gisa aplikazioa eskaintzea.
 - Ikastetxeetan saio praktikoak antolatzea, Aurora app-aren erabileraren inguruko prestakuntza emateko.



2.3 Gobernu eta Erakunde Publikoekin Lankidetzak

- Udalerri, autonomia eta estatu mailako erakundeekin lan eginez, adibidez Durangaldeko udalekin, elkarlanean aplikazioa genero-indarkeriaren prebentziorako tresna gisa ezartzea. Honetarako haiekin harremanetan jarriko gara eta haiekin hitzordua jarriko dugu proiektuaz hitz egiteko.



- Genero-berdintasunarekin eta giza eskubideekin lotutako departamentuetarako erabilgarritasun zuzena sustatzea. Udaletzeko langileei triptiko batzuetan emango dizkiegu proiektuaren informazio guztiarekin, non bertan gure proiektua ezagutu eta beraien plan estrategikoetan martxan jarri dezaketen.



3. KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEA

- Online foro eta taldeak, erabiltzaileek esperientziak partekatu eta ahalduntze kolektiborako espazio bat sortzeko. Horretarako, gure app-an badago atal bat non, adibidez, eraso matxista bat jasan badut, han konta dezakedan, jendeak lagun diezadan edo nik lagundu ahal izateko, bakarrik ez daudela jakinaraziz.



gure app-aren webgunea→

<https://sites.google.com/durangobhi.net/auroracom/orri-nagusia>